ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko ekainaren 21a, ostirala • 70 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

## MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eraiki eta A-623 errepidearekin lotzeko proiektuaren lehenengo aldaketak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrendaren jendaurreko informazioa**

Foru Gobernu Kontseiluaren 2024ko ekainaren 11ko 359/2024 erabakiaren bidez, A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eraiki eta A-623 errepidearekin lotzeko proiektuaren lehenengo aldaketak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Alegazioak xedatutako epearen barruan aurkeztu beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein lekutan, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza, 4–6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz).

Interesa duten erakunde, entitate, korporazio eta partikularrek eskuragarri dituzte lurzatien planoak eta eraginpekoen zerrenda, Legutioko Udaletxeko ediktu taulan, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, eta, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, esteka honetan: https://irekia.araba.eus/eu/expropiaciones.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 13a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*
*MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila**

**Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias**

PROIEKTUA / PROYECTO

**A-2620 errepidean Legutioko saihesbidea eraiki eta A-623 errepidearekin lotzeko proiektuaren lehenengo aldaketa**

**Primera modificación del "Proyecto de construcción de la variante de Legutio en la carretera A-2620 y conexión con la carretera A-623"**

ERANSKINA / ANEXO

Udal Mugartea / Término Municipal: Legutio

**Esp./Expte. 2023/1-B**

| FINKA ZK. | TITULARRA | KATASTROKO DATUAK | | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO ONDASUNA | ERAGINDAKO AZALERA m² | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLÍGONOA | LURSAILA | | | BEHIN-BETIKOA | ALDI BATERAKOA | ZORTASUNA: Aireko behe-tentsioa (1 m) |
| Nº FINCA | TITULAR | DATOS CATASTRALES | | APROVECHAMIENTO | BIEN AFECTADO | SUPERFICIE AFECTADA m² | | |
| | | POLÍGONO | PARCELA | | | DEFINITIVA | TEMPORAL | SERVIDUMBRE: Baja tensión aérea (1 m) |
| 37/080 | ERLANTZ ORTIZ DE BARRON SOUBIES<br>MARIAKA VELASCO REGUERO | 4 | 73 | Lorategia / Jardín | Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero | 35 | 67 | 16 |
| 37/090 | F. JAVIER SAENZ DE VITERI SAENZ DE VITERI | 4 | 74 | Laborantzarako lurra / Tierra de labor | Landare elementuak / Elementos vegetales | 83 | 78 | 29 |
| 62/100 | ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: LEGUTIO | 3 | 561 | Onura publikoko mendia / Monte de utilidad pública | Zuhaizti / Arbolado | 1065 | | |
| 63/100 | ADMINISTRAZIO BATZARRA/ JUNTA ADMINISTRATIVA: LEGUTIO | 4 | 490 | Onura publikoko mendia / Monte de utilidad pública | Zuhaizti / Arbolado<br>Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero | 4535 | | |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.06.21 05:20:20 Z